



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2022KO UZTAILAREN 28AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2022ko uztailaren 28an arratsaldeko 19:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Xabier Azpiroz, Santos Etxegia, Ricardo Arangoa, Julen Beunza eta M Mar Ansorena.

BERTARATU EZ DIRENAK: Olatz Dorai.

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Aurreko aktaren onespena.

Ekainaren 30eko ohiko batzarreko akta emaillez helarazitako aho batez onartzen dute bildutakoek aurreko batzarreko akta.

2.- Alkate ebazpenak

Alkateak orain arte onartutako mozioen laburpena irakurtzen du:

2022/56 alkate ebazpena onartuz, obra baimena ematea: Joaquina Echeguia Lasarteri

Berueteko 12. Poligonoko 23. Lursailean dagoen etxebizitzan ate bat ireki eta arrapala desmontagarria jartzeko.

- 2022/57 alkate ebazpena obra baimena emanaz Udabe Beramendiko kontzejuari Udabeko 1. Poligonoko 23. Lursailean biltegiaren teilatua eraberritzeko, obraren aurrekontua 10.880,10 eurokoa da.

-2022/58 alkate ebazpena onartuz Marta Landeira Santosek aurkeztutako aitorpen ardurtsua Aizarotzko 10. Poligonoko 87. Lursailean dagoen etxebizitzaren garajeko sarbideko fatxada konpontzeko, harrizko zolakoa eta terrazako zeramika aldatzeko.

- 2022/59 alkate ebazpena onartuz Aizarotzko Olaondo 3 Bizilagunen Elkartoak aurkeztutako aitorpen ardurtsua Aizarotzko Olaondo 3 kalean dagoen erakinean dauden 20 tximietan tximinien hegala impermeabilizatzeko eta junturak zigilatzeke.

-2022/60 alkate ebazpena onartuz Inicativas Innovadoras empresaren aurrekontua 3.575 eurokoa BEZ kanpo, eta onartzea ere txosten hori egiteko aurkeztutako egutegi proposamena.

-2022/61 alkate ebazpena ez onartuz Arraratsko 14. Poligonoko 360. Lursailean irekiera baimenik gabe landaetxe iharduera egitearen kontra hasitako txosten zigortzailearen inguruan jabeak aurkeztutako alegazio txostena.

- 2022/62 alkate ebazpena, Ane Sirera Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Taldeko gizarte-langileak egindako eskaera onartuz eta baimena ematea, Apeztegiherria eraikineko bigarren solairuan dagoen udal-aretoa uztailearen 12an 17: 30etik 18: 30era saio bat egiteko erabiltzeko..

- 2022/63 alkate ebazpena onartzea Aintzane Andueza Zabalok egindako eskaera eta hortaz onartu 2009/11 Foru Dekretuaren 14 eta 15. Artikuluek arautzen dutenaren arabera abuztuaren 22 eta 23a soldatik gabeko egunak izatea.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte irakurritako alkate ebazpenak.

3.- Irekiera baimenik gabe Iriarteko bordan apartamentu turistikoak alokatzeagatik irekitako txosten zigortzailea.

Alkateak azaltzen du Nafarroako Auzitegi Administrazioaren epaia ikusi ondoren berriro hasiera eman zitzaion txosten zigortzaileari eta alegazio epea eman sustatzaileari jarraituz epaiak adierazten zituen pausoak.

Irakurtzen du aurkeztutako alegazio txostenen inguruan Biderka abokatuak aholkularitzak egindako txostena, Bertan ondorioztatzen du alde batetik iharduera egun jarraitzen duela, hori islatzen duen Foruzaingoaren txosten bat dago, ekainean alokatu zutenen lekukotzarekin, hortaz ez dute erabiltzen familiaren egonaldietarako, bestetik bidaltzen zaizkio eskatu bezala udalak dituen proba guztiak eta eskakizun teknikoak eta ondorioztatzen da irekiera baimenik gabeko iharduera bat indarrean dagoela eta hori isun larritzat jotzen duela 2006/93 Foru Dekretuak eta hortaz isun proposamena 20.000 eurokoa dela.

Hau kontutan hartuta bildutako en erabakia da berrestea 2022/61 alkate ebazpena non ez diren sustatzaileak aurkeztutako alegazioak onartzen Biderka Abokatuak aholkularitzak egindako txostenaren arabera- jakinarazten zaio espedientearen kopia ematen zaiola eta ere txosten zigortzaileari isun larria jartzen zaiola eta kopurua 20.000 eurokoa dela. Honen ondoren audientzia tramitea ematen zaio sustatzaileari eta ondoren prozedura behin betikoz onartu eta jakinaraziko zaio.

4.- Elbarrien aparkatzeko txartela arautzen duen ordenantzaren aldaketa. Behin betiko onespena.

Apirilaren 28ko batzarren hasiera batez onartu zen ordenantzaren aldaketa, aldaketa honen funtsa zen NGak onartutako 2022/52 foru agindura egokitzea zen.. Bertan zehazten zen txartelaren iraupena 5 urtekoa izango zela ondoren berritzeko aukerarekin eta onuradun bezala adinez txikikoak ere sartzen zirela ere...

Hortaz eta 1990/6 Toki Administrazioako Foru Legearen 325 artikulua jarraituz hasierako onespena maiatzaren 22ko NAO n argitaratu ondoren ekainaren 28a arte jende aurreko epean egon da eta alegaziorik aurkeztu , behin betiko onespena eman ahal zaio ordenantzaren aldaketari eta testu osoa argitaratu indarrean sartzeko.

Bildutakoek aho batez onartzen dute behin betiko onespena ematea Elbarrien aparkatzeko txartela arautzen duen ordenantzaren aldaketari. eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agintzen dute..

5.- Udal eraikinetan dauden gelen erabilera arautzen duen ordenantzaren aldaketa. Behin betiko onespena.

Apirilaren 28ko batzarren hasiera batez onartu zen ordenantzaren aldaketa. Aldaketa bezala sartu eskatzaileak udalarekin zorrak ez izatea justifikatu behar izango dute indarrean sartzen denetik..

Hortaz eta 1990/6 Toki Administrazioako Foru Legearen 325 artikulua jarraituz hasierako onespena maiatzaren 22ko NAO n argitaratu ondoren ekainaren 28a arte jende aurreko epean egon da eta alegaziorik aurkeztu , behin betiko onespena eman ahal zaio ordenantzaren aldaketari eta testu osoa argitaratu indarrean sartzeko.

Bildutakoek aho batez onartzen dute Udal eraikinetan dauden gelen erabilera arautzen duen ordenantzaren aldaketari behin betiko onespena ematea eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu.

6.- Taxi baimenaren araudia. Hasierako onespina.

Alkateak azaltzen du taxi baimenaren iraungitzearen prozedura bukatu ondoren eta baimena konkursora atera baino lehen taxi baimenaren udal araudia onartu behar da. . Bakaiku eta Leitzako udaletan onartua duten araudia oinarri bezala hartuz prestatu da orain onartzeko proposamenarekin irakurtzen den araudia.

Alkateak irakurtzen du araudi proposamena.

Bildutakoek ontzat ematen dute eta 1990/6 Toki Administrazioiko Foru Legearen 325 artikulua jarraituz hasierako onespina eman eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea agindu hilabeteko epean.

7- Batzordeen informazioa.

Garapen Batzordea. Ricardo Arangoak ematen du informazioa.

Ekainaren 24an ospatu zen Mendialdeko ekoizleen azoka Orokietan. Jende dexente ibili zen baina ekoizleen kopurua izena eman zutenekin alderatuz jaitzi zen

Kontzejuen Batzordea. Santos Etxegiak ematen du informazioa.

Orokietan Erbitiko kontzejuak hiru herrietan sarean berritu eta zolatzeko memoriak eta tokiko inbertsioen planean sartzeko eskaerak udalaren izenean egin dira. Eta obraren kudeaketa udaletik egingo denez haiekin sinatuko da hitzarmen bat finantziarioaren ingurukoa.

Kultura Batzordea. Julen Beunzak ematen du informazioa.

Abuztuaren 26an eta arratsaldeko 19etan Bolante baten historia emanaldia egingo da Apeztegierriko ganbaran.

Abuztuaren 27an aldiz Aizarotzen kontzertua Roland Garcesen eskutik.

Hezkuntza Batzordea. Esther Lacastak ematen du informazioa.

2022-2023 ikasturterako Nafar Gobernuak bere gain hartuko du 16 eta 18 arteko ikasleen garraioa, zonaldeagatik dagokien ikastetxeetara.

Basaburuaren kasuan zerbitzua izango da Aizarotztik Askatasuna ikastetxera joateko Ultzamatik eta Irurtzundik Donibane, Donapea eta beste ikastetxe batzuetara joateko.

udalak antolatu beharko luke taxi zerbitzua Basaburuko beste herrietako ikasleak Aizarotzera eramateko Askatasunara joango direnen kasuan eta bestetik Irurtzunerainoko zerbitzua beste bat Donibane eta beste ikastetxeetara joaten direnentzat.

8.-Moziok.

Ez daude.

Gai ordenetik kanpo badaude bi gai aztertzeko eta bildutakoek aho batez onartzen dituzte biak gai ordenean sartzea,

Aizarotzko ostatuko zerbitzu kontratuaren esleipenari hasiera ematea.

Alkateak irakurtzen du egun dagoen esleipendunak egindako eskaera ostatua irailaren 30etik aurrera uzteko.

Hortaz berriro epe horretatik aurrera irekia jarraitzeko esleipen prozedurari hasiera em behar zaio eta esleipen hau arautuko duen plegua onartu.

Irakurtzen du alkateak prestatutako plegu eredua.

Bildutakoek ontzat ematen eta onartu eta kontratazio portalean iragartzea agintzen dute 20 eguneko epean, proposamenak udalean aurkeztu behar direla adieraziz.

Gainera ere Cedenarekin hitz egingo da sustatzaileen atarian argitaratu dezaten.

Alkatea ordearen izendapena, alkatearen oporraldian.

Alkateak adierazten du abuztuaren 1etik 17ra biak barne oporretan egongo dela eta epe horretan alkate ordearen esku utziko dituela alkateran funtzionak.

Hortaz Toki Korporazioen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren gaineko Erregelamenduko (abenduaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bitartez onetsia) 47. artikuluan ezarritakoari jarraituz, jakinarazten du, Xabier Azpiroz Latasa lehen alkateordearen esku utziko dituela, alkate funtzioak.

Bildutakoek aho batez onartzen dute erabakia eta akordio hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea agintzen dute , behar diren ondorioak izan ditzan..

9- Informazio orokorra

- Adinduen ariketa parkea egiteko laguntzaren onespina. Onartutako laguntza 3207 eurokoa da.
- Arte eta kultura laguntzaren onespina 2000 euroko laguntzakoa, aurreikusitako gastua aldiz 4.000 eurokoa.

10. Erregu-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 20:05 direnean bilera amaitut zat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.